

Amairu Reparaz Estamāna
Tribuko Etobidea 6
31839 abizu

Gerra Zibileko lekukoak



Xarelan

45

Erraldoi urdinak

GURE LEKUKOAK

Izena: Jose M^o Reparaz Razkin

Jaiotze urtea: 1922ko Urtarrilaren 14

Jaioterria: Arbizun jaio eta betidanik bertan bizi izandakoa

Egoera zibila: Alarguna

Seme kopurua: Lau

Izena: Jose Arbizu

Jaiotze urtea: 1909ko Azaroaren 10

Jaioterria: Arbizun jaio eta betidanik bertan bizi izandakoa

Egoera zibila: Alarguna

Seme kopurua: Lau

LEKUKOEN BIZITZA HISTORIAN KOKATURIK

1936ko uztailaren hemezortzia zen eta Arbizun nabaria zen jada gerra giroa. Aurrean aipaturiko herrian eta inguruko beste hainbatetan jendea elkartzen hasi zen nolabait ere indar horietara hurbildu eta konzentrazioa sortzeko. Autobusak ere jarri zituzten helburu hau lortzeko asmoz; Jose M^º, hamalau urteko gaztetxoak garraioaren gainean egin zuen bidea Etxarri-Aranatzen bildu ziren indar horietara iristeko.

Sakanaldean reketeak edo nazionalistak ziren gehienak, izan ere, Nafarroan Mola generala zegoenez, eskualdea berehala geratu zen haren menpe, biztanle guztiak nahi eta nahiez nazionalisten alde borrokatzera behartuz.

Francok Espainia menperatzen ziharduen artean, hauen alde borrokatzen ari zen Jose izeneko arbizuarra, errepublikazaleek preso hartu zuten. Santander inguruko eliza batean zegoen atxiloturik beste berrehun bat pertsonarekin batera, *prisioneros de guerra* berrogei soilik izan arren. Errepublikarrek Asturiasa eraman behar zituztela esan zieten, baina hori preso guztiak hiltzeko aitzakia bat besterik ez zela pentsatuz, uko egin zioten lekuz aldatzeari. Gauzak ahalik eta azkarren bukatzearren errerepublikarrek ellizako ate pisua bortizki zabaldu eta barruko guztiak fusilatzen hasi ziren. Jose eta beste bederlatzi lagun halako iskanbila ikusita aldare azpiko zulo batean sartu ziren, lurreko oholak kendu eta bertan estaliz.

Nahaspila hark iraun zuen denborak amaitezina zirudien, baina noizbait bukatu zen eta eliza hura isiltasun sakon batean murgilduta geratu zen. Arriskua urrun ikusi zutenean haien estalekutik atera eta kontu handiz eliza atzean utzi zuten. Baina ez zeuden salbu oraindik, etsaiaren lurretan baitzeuden. Arrazoi honegatik gauez soilik ibil ahal zitezken eta egunez, sasi artean eta erreka zikinetan sartuta. Zortzi egun egin

zituzten mokadurik jan gabe, soroetan aurkitzen zituzten peila eta patata gordinez soilik elikatuz. Egun lazgarrik izan ziren haiek, beren herritik urrun.

Egunetik egunera Espainia nazionala zabal eta boteretsuagoa zen. Zenbaitetan Frankok ez zituen oso metodo zibilizatuak erabiltzen, esaterako, 1937ko apirilaren 26garren egunean Alemania faxistari laguntza eskatu eta airetik populazio zibilaren aurka munduan egindako lehen bonbardaketa krudela burutu zuen Gernikaren kontra. Picassok hormirudi ezagun eta ikusgarria margotu zuen .

Nazionalak hiriburu bat bereganatzen zuten aldiro, Arbizun eta beste hainbat herritan ere pelaiok kalejira bat ospatzen zuten zera abestuz: *¡Irun ya es nuestro!*. Jose M^a ere han ibiltzen zen karrikan gora danborra joz (Etxarriko gizon batek erakusten zizkion instrukzioak egunero) eta mezaren hasieraren berri emanez.

Ekainak hemereretziak, Bilbo izan zen Frankok menperatu zuen hiriburu euskalduna, asko kosta zitzaien. Izan ere, “cinturon de hierro” delako defentsari muzin egiteak, denbora dexente eman baitzien.

Baina berriz ere, gure Jose, errepublikarren esku zegoen, barku batean preso. Ondo portatzen omen ziren beraiekin, ez zieten asko sufriarazten. Behin, bazkaltzen ari zirela, jendea botaka hasi omen zen:

- Janaria pozoindua dago!! – oihu egin zuen batek.
- Errepublikar hauek guztiak pozoindua hil nahi gaituzte!!

Josek, sekula baino gehiago jan zuen baina haren sabela... beruna bezain gogorra zen. Azkenean, guztia ezusteko batean geratu zen. Errepublikarrek bota zuten pozoina, tripak nahasteko soilik izan zen. Han ibili zen Jose, barkutik pozala itsasora bota, urez bete, eta bere lagun gajoei, kakalarria eta botagurea zuten haiei, ipurdia itsasoko urez garbitzen. Gogorra zen gizona, bai, harria bezalakoa.

Garai haietan (gerra garaian), gosea pasa zuten, bai, baina egoera okerragotu egin zen gatazka bukatu eta gero. Gerra garaian, jakiak kentzen zizkieten, hala nola gari, arto, patata eta bestelako oinarrizko elikagaiak, soldaduei emateko. Gatazka amaitu eta gero ordea, gose gorriaren garaia iritsi zen: arrazionamenduaren garaia. Orduan, familia bakoitzari, hilabeterako janaria ematen zioten, eskasa beti, eta hori soilik zuten, ez baitzegoen elikagaiak beste modu batean lortzeko biderik. Hemen aurki ditzakegu merkatu beltzaren jatorria. Jendeak, etxeko ganadua hiltzen zueneko izaten zuen momenturik gogokoena. Etxeko animaliak hil, eta familiaren artean banatzen ziren, birika, tripota eta bestelako jakiak prestatuz, eta ahalik eta gehien aprobetxatuz. Hortik esatera zahar hau. "Ezkondutako astea eta txerria hildako astea onenak"

GERRA ZIBILEKO ELKARRIZKETAK

Jose M^a Reparaz

-Zuk nola gogoratzen duzu gerra hasiera?

-Ni akordatzén neiz ásiera-asierá, el diezinuébe, emín dieziotxúen ási zen beyá Arbizun da, Etxarrin ta olá juntetzén ási zién ya, reketiék, falanjiék ta... járri ziún además autobusá Arbizutik Etxarrira fatekó, fuerzoitaá arrimetzekó, dénok an konzentraziyuá nunbeitteé éitteko. Ta gu fan ginén autobusién geñén itzóota! Geñén, barnén reketiék eta gu geñén. Aik nei zubién ikustiá ingerrá zakiyéla geyoó (...)

-Zure familiakoren bat joan al zen gerrara?

-Lau, lau anéi, buéno ba yoo iru aneitetik bat libretzén zen eta láutetik pues bat libretú zen, Manuel libretú zen, tetorzén ura itxáa. Beya bitertió neroói bakarrík geldittú nitzeén, amaláu urtéeki, yoo amabóst ta soóuen, neroói ganaduekí, makinén da lan guziék eettén, gariyaík bildú, yoo laauntzén ziun ee, gizonák zerá gerrán zazkiyeén jendiéi gariyaík biltzén, auntziyék eettén taa ólako lan klasioitetik.

-Gosea pasa al zenuten?

-Ómbre gosiaá bei zeengati aik eettén zubién, jenduetén zubién ee(...) biltzén giñubeén gariyá, taa ola ibiltzén giñén. Askotán estali, estali eittén giñubén ez jentziaati, ta estariyén oo belár azpiyén estaliik igué... taa káro itxáako ez giñakán geyeirík eta yoo jentziaakí, pues gutxóo, beei. Ordubén ee itxén jàten giñubeén pues ee bertakó gauzá biltzén giñubeéna, jaten giñubeén alooyá, patetá... yoo debéi arrontziátzuk, eta.. letxonák iltzén giñuzkiyén, bi egunetan, urtien, taikií txistorrak een, yoo birikék esateñ giñuzkién eta.. tripoták debéi iltzén giñubienién letxoná, yoo eittén giñuzkiyén partittú

puxkék esatén giñoón, bíltzen giñeén parientetáa, gaztiék eebéi, an bíltzen giñén dénak giñén gaztiék eta yoo pues bandejáatzuten ta kapazotán ta ola repartitzén ibiltzén giñeén. Ta yoo bueltatzén, atziaa bueltatu éttén zien aik, ómbre gioo ondorién aik iltzén zubieénien atziaa guui.

-Garai haietan euskaraz hitzegiten al zenuten zuen artean?

-Auskiás, bei. Béti éttén giñubén auskiás. Eskolán... eez, béeitzen zubién erdiaás itzeéttoko.

-Lagunen artean gerrari buruz asko hitzegin al zenuten?

-Gerraangatík? Ómbre askó, bei, radiyua jartzén giñubén, gerra nolá ziyueén abanzatzén ta pués béti espiáa óóten giñén gobetán ta... parkién entiaátzekó. Ta pues, arrapatzén fatén zieenién, káro gu geen aldekuék, geen aldekuén aldé ordubén!

-Elizak betetzen al zuen bere eginkizuna garai haietan?

-Elizaá normál, ordubén garéi aitén guáai beñó geyoó además, ordubén fatén giñén mezaá bezperetaá debéi.

-Eskoletan Francoren ideologia nabarmena al zen?

-Ez, guui ez. Ortán guukín politikén etzieen sartzén.

-Gogoratzén al duzu anekdotaren bat?

-Bei, pelayuék izetén giñén gu. Pelayotán, Arbizun bageundén, ee laurogéi o pása. Gizón batek aakustén zittún istrukziyuék, ta aik ikés giñuzkiyén, ta soldaduék bezelá ibiltzén giñeén istrukziyuék éetten. Ta yoo neei aakús ziteén danborrá jotzén, ta jotzén nubeén danborrá. Mezaá fatén giñén, búeno bi pelayó artzén nittubén ta ni erdiyén da béste biyék fusillekí, egurreskuekí. Iyendioó éttén giñubén ooi, beyá istrukziyuék egunioó iyá, Etxarrira fatén giñén Larrañetaa. Eta fatén nintzén goizioó góiko ataaireño; mezaá an enteratzén zien guui danborrá jotziaakí. (...) Ta yoo denák

formatutá elizaá. Ta elizén oóten giñén, ee pasillúen, aldariaán kontrán, dénok zúti ta deskánsó...

-Sakanázer zegoen rekete edo falangista gehiago?

-Barrankán gárei artán reketiá geyóó, falanjíá gútxi ta reketiá geyóó. Arbizun debéi reketiá geyóó.

-Garai hartatik oroitzapen onak ere geratu al zitzaizkizun?

-Buéno... gáuz askó enteratzén giñén ordubén, enteratzén zaá gáuz askós, ee... kanbietú zen gáuz askó. Garéi aitén atziaá xamár zioón ba, ta bétí aurriatzén ziyuén, gerraáki bétí fatendá aurriaatzén ta enteratzén jendíá.

-Lehengo jolasen bat gogoratzen al duzu?

-Jolasák? Pues anelaká, estarbiyén estalitá ta... óla ibiltzén giñeén. Billáá fan ta yoo pues, ee pillariaá fátén giñén ta an ikutú bizubeén líbre gelditzekó. Estarbiyén ibiltzén giñén ásko, ta yoo ganbaatxuén debéi. Attokaká, koxkolinká,... ta ola.

ildakó denák ataái zittubién elizatík. Gu beeix aldaré azpiyén sartutá giñodén dénak ataái arté. Ta eliz urá geldittú zen íxil-ixilik (...) Ataa giñén andí, taguui aldíaá allaatzekó gobés ibiltzén giñén (...).

Bestiaatién, barkuén presó giñodén artán, bóta ziyuén egún betién ezkerrekuék apropós, trípek nastutzekó benenuá. Nik sekulá béño obekí jan nubeén, bestiék beeix denák kakafirriyaakín. Egún aitén ni pozalaaki ipurdiyá garbitzén íbil nintzén bestiéi.

(...)

-Gogoratzen al duzu gerra garaiko abestiren bat?

-Bei, beyá gerra gareyén kantatzén giñubenekúa:

Esta muy bien, la canción de esta bella guitarra

Esta canción la cantamos de noche de farra,

Noche de farrandía, una chiquilla en un cabaré

Viene el sereno y la coje, la pobre chiquilla no sabe que hacer

Porque soy un borracho ya no me quieres

Esos son caprichitos de las mujeres (...).

-Herria zatituta geratu al zen gerra ondoren?

-Ze, Arbizu? Ez, Arbizun denók bat óoten giñén.

(...)